

JARDUERA

MISIO DIPLOMATIKOA

Gaizki-ulertuak gatazken iturri izan daitezke, baldin eta ez baditugu modu baketsu batean aztertzen. Bakea eraikitzeko, funtsezkoa da guk adierazi nahi duguna ulertaraztea alde batetik, eta besteek adierazi nahi dutena ulertzen saiatzea, bestetik. Hitz egin dezagun!



URTARRILAK 30
Bakearen Eguna

Helburuak

- Indarkeriarik Ezaren eta Bakearen Eskola Eguna ospatzea (urtarrilak 30).
- Tolerantzia eta kultur arteko elkarrizketa sustatzen duten jarrerari buruz hausnartzea.
- Herritartasun globala lortzeko gaitasunen garapena laguntzea.
- Negoziazioa, bitartekaritza eta adiskidetzera lortzeko elementuak aurkeztea, funtsezkoak baitira gatazkak konpontzeko trebetasunak garatzeko eta helburu komunak erdiesteko.
- Bakea modu proaktibo batean eraikitzen laguntzen diguten elementuei buruzko hausnarketa sustatzea.
- Bakearen ikuspegia osatzean, norberak egunero duen erantzukizun bat dela azpimarratzea.

Behar diren materialak

- 1. eranskina: negoziazioan trukatzeko triangeluak eta karratuak.
- 2. eranskina: Kultur deskribapenak eta kidego diplomatikoaren etiketa-arauak.
- Gutun-azalak (taldeko bana).

Prestakuntza

Ikasleei bakearen eguna ospatuko dugula esango diegu, eta horregatik misio diplomatiko bat egingo dugula azalduko diegu. Helburua da enbaxadore-talde bakoitzak bere misioa betetzea, bere hizketakideak haserretu gabe eta harreman diplomatikoak eten gabe.

- Gela bi taldetan banatuko dugu: "kolostandarrak" eta "forturatarrak". Mugakideak diren bi herrialdetako kideak dira: "Kolostan" eta "Fortura". Ikasle asko badaude, lau talde egin daitezke, herrialde bakoitzeko bina, eta bakoitzak bere lana egin dezala.
- Jarduerari ekin aurretik, inprimatu eta moztu nahikoa karratu eta triangelu; ziurtatu talde bakoitzak bi karratu eta bi triangelu dituela bere gutun-azalean. Inprima itzazu, halaber, talde bakoitzaren kultur deskribapenak.
- Banatu gutun-azal bana taldeko, kultur deskribapenarekin batera. Minutu pare bat utzi informazioa irakurtzeko eta negoziazio diplomatikorako prestatzeko. Kontuz ibili beste taldeko kideek ez entzuteko; ez duzue informaziorik partekatuko beste taldeekin. Galdera batzuen bitartez, ikasleei euren estrategia definitzen lagun diezaiekegu:

- Zer kolore edo forma lortu nahi dugu?
- Nork hitz egingo du negoziazioan? Talde osoak edo ordezkariaren batek?
- Nola agurtuko dugu beste taldea?

Kidego diplomatikoaren lana

Taldeetan hausnartu eta gero, negoziazioa hasiko da. Negoziatzeko arauak ezarriko dira, eta arau horiek urratuz gero, harreman diplomatikoak eten egingo dira eta misioak porrot egingo du. Hauek dira arauak:

- Ezingo da irudirik lapurtu edo borrokarik egin negoziazioan.
- Negoziazio-gelan zarata handiegia badago, prozesua amaitutzat joko da.
- Negoziazioan taldeetako kideek ezin dute elkar ukitu.

Negoziazioak hiru minutu inguru iraungo ditu. Negoziazioa garatzen den bitartean izan daitezkeen arazoak eta zailtasunak behatu. Arazoak konpontzen ez badira, eten negoziazioa eta hausnartu ikasleekin egoerari buruz:

- Zein oztopo daude negoziatzen jarraitzeko?
- Beste taldeak iraingarria izan daitezkeen zerbait egin al du zure taldearen aurka?

Eskatu taldeei euren etiketa-arauak adierazteko agurtzean eta oztopo hori gainditzeko modurik ote dagoen galdetu. Animatu parte-hartzaileak desberdintasunak neutralizatzen lagunduko duten "negoziazio-arauak" ezartzera. Hasi berriro negoziatzen, eta utzi beste hiru minutu elkarreragiteko.

Jarduera amaitutzat joko da denbora amaitzean, edo taldeek misio diplomatikoaren helburua betetzea lortzean. Ondoren, amaierako hausnarketa egingo dugu:



- Zer gertatu da negoziazioan?
- Bete al dira misio diplomatiko bakoitzaren helburuak? Zergatik?
- Talde bakoitzaren helburuak bateraezinak al ziren? Arazoak mamiarekin edo jarduteko moduarekin egon dira erlazionatuta?
- Zer estrategia jarraitu zuen zure taldeak akordio batera iristeko?
- Zeintzuk ziren zure taldearen balioak? Zeri egin zenioten uko akordioa lortzeko?
- Jarduera honetan bi kulturen arteko gaizki-ulertu bat aztertzen da. Non gertatzen dira gaizki-ulertuak zure eguneroko bizitzan? Zer gertatzen da jendeak, taldeek edo kulturek elkar ulertzea lortzen ez dutenean? Zer egiten dute pertsonak edo gizarte-taldeek gaizki-ulertuak gainditzeko?
- Zein izan dira jarduera honetan jarraitu diren baketze-estrategiak? Erabil al ditzakezu gaitasun horiek beste egoera batzuetan?



Atera argazkiak jarduerari edo bideo bat grabatu, ikastetxeko blogean edo egunkarian argitaratzeko edo sare sozialetan zabaltzeko.



JARDUERA. 1. ERANSKINA: Negoziazioan trukatzeko triangeluak eta karratuak.



Kolostandarrak

Kolostandarrak, antzinako Kolostaneko herritarrak, oso baketsuak dira. Esku bat altxa eta esku-azpia erakusten dute, hori baita agurtzeko eta agurtzen duten pertsonari euren errespetua erakusteko modua. Kidego diplomatikoa bereziki trebatuta dago beste aldeari errespetuz eta behar den bezala erantzuteko, hortaz, eskua altxatzen dute, behin baino gehiagotan, elkarrizketak irauten duen bitartean. Modu horretara, errespetua erakustez gain, arazorik edo gaizki-uleriturik egonez gero, eskua altxatzen dute, berriz adiskidetu eta bakea lortzeko.

Kolostandarrek ez diote inoiz eskua luzatzen beste pertsona bati (eskua emateko), Kolostanen keinu zakar bat baita. Kolostandar bati eskua modu horretan luzatuz gero, benetan minduta sentituko litzateke eta automatikoki ez lioke gehiago hitz egingo pertsona horri.

Kolostandarrei kolore bereko gauzak edukitzea gustatzen zaie: ez zaie forma axola, kolore berekoa den bitartean. Misio diplomatikoa bi triangelu gorri baliotsu eta bi karratu urdin garesti negoziatuko dira: helburua da kolore bereko lau irudirekin itzultzea Kolostanera, forma edozein dela.



Forturatarrak

Forturatarrak, antzinako Forturako herritarrak, oso baketsuak dira. Agurtzeko orduan, esku bat aurrera luzatzen dute (eskua emateko moduan), hori baita agurtzeko eta agurtzen duten pertsonari euren errespetua erakusteko modua. Kidego diplomatikoa bereziki trebatuta dago beste aldeari errespetuz eta behar den bezala erantzuteko, hortaz, eskua altxatzen dute behin baino gehiagotan elkarrizketak irauten duen bitartean. Modu horretara, errespetua erakustez gain, arazorik edo gaizki-ulerturik egonez gero, eskua altxatzen dute, berriz adiskidetu eta bakea lortzeko.

Forturatarrak ez dute inoiz esku-azpia erakusten agurtzeko (beste norbaiti geratzeko keinua egingo bagenio bezala), Forturan keinu zakar bat baita. Forturatar bati eskua modu horretan altxatuz gero, benetan minduta sentituko litzateke eta automatikoki ez lioke gehiago hitz egingo pertsona horri.

Forturatarrei forma bereko gauzak edukitzea gustatzen zaie: ez zaie kolorea axola, forma berekoa den bitartean. Misio diplomatikoan bi triangelu gorri baliotsu eta bi karratu urdin garesti negoziatuko dira: helburua da forma bereko lau irudirekin itzultzea Forturara, kolorea edozein dela.

